

Teodora Ugarte Orue

*Arrasate
Gipuzkoa (1934)*

Aurkibidea

Biografia



Zintak

ARR-015

- **Proiektua:** Arrasateko haur kantak eta jolasak

- **Elkarrizketatzailea(k):** Garro, Eneritz
- **Data:** 2005-01-05
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Transkribatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane

ARR-016

- **Proiektua:** Arrasateko haur kantak eta jolasak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Garro, Eneritz
- **Data:** 2005-01-05
- **Iraupena:** 20 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Alberdi Bilbao, Itziar

Pasarteak

1. Inguruko auzoetakoak batera eskolara

- **Erref:** ARR-015/006
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:06:30. **Bukatu:** 00:09:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Eskola kontuak. Auzo-eskolara 6 urterekin joaten ziren. Neska-mutilak elkarrekin. Garagartza, Santa Ageda, Udala eta inguruko beste auzo batzuetako umeak joaten ziren bertara. Maisua nolakoa zen. Jolas orduan ere banatuta neska-mutilak.

2. Neskak eta mutilak eskola desberdinetara

- **Erref:** ARR-015/007
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:09:45. **Bukatu:** 00:11:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

<p>Neska-mutilek ez zuten ia harremanik izaten eskolan. Gerra aurrean Garagartza eta Santa Agedarako beste eskola bat egin zuten. Hortara, neskak eta mutilak eskola desberdinetara joaten hasi ziren. Klaseak erdaraz izaten ziren. Zigorak.</p>

3. Gerra ostean eskolan abesten zituztenak

- **Erref:** ARR-015/008
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:11:40. **Bukatu:** 00:12:35

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Katak » Kantei buruzko azalpenak
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

<p>Gerra ostean, Cara al Sol, Gloria, Por Dios por la patria... ikasi zituzten. Eskua altxatuta eta zutik abestu behar izaten zituzten.</p>

4. 12-13 urterekin dibujo lineala ikastera

- **Erref:** ARR-015/010
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:13:35. **Bukatu:** 00:15:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

15 urte zituenean, bere adineko mutilak Arrasatera joaten ziren ikasten jarraitza. Joxe 12-13 urterekin dibujo lineal ikastera joan zen. 14 urterekin lantegira sartu zen.

5. Teodora Garagartzako eskolara

- **Erref:** ARR-015/012
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:16:40. **Bukatu:** 00:18:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Teodora Ugarte Orue. Santa Agedan hasi zen eskolan. Urbana izan zen bere lehenengo maistra. Garagartza eta Uribarri auzokoak ere bertan ibiltzen ziren. 14-15 urterekin eskola amaitu zuen.

6. Aita lantegira eta bera baserriko lanetan

- **Erref:** ARR-015/013
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:18:00. **Bukatu:** 00:19:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Baserriko bizimodua. Aitak fabrika lan egiten zuen eta berak egiten zituen

baserriko lan gehienak. Bi ahizpa 18 urterekin Fagorren hasi ziren lanean; beste batek josten ikasi zuen.

7. Garagartza eta Santa Ageda auzokoen arteko pikeak

- **Erref:** ARR-015/014
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:19:00. **Bukatu:** 00:21:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Auzoen arteko haserreak; Garagartza eta Santa Agedakoen artekoen harremana.

8. Garagartza eta Santa Ageda auzokoen arteko pikeak

- **Erref:** ARR-015/015
- **Iraupena:** 0:03:50. **Hasi:** 00:21:25. **Bukatu:** 00:25:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Garagartza eta Santa Agedakoen artekoen harremana ez zen batere ona. Egoera horren arrazoiak zeintzuk izan zitezkeen. Santa Agedan moja eta fraide asko zeuden. Santa Agedakoak kultura, musika kontuetan adituagoak. Gehienak lantegietan lan egiten zuten. Garagartzakoak berriz, baserriko jendea zen batez ere.

9. Denek ontzi batetik jaten zuten baserrian

- **Erref:** ARR-015/016
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:25:15. **Bukatu:** 00:26:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Garotara baba-lapikoarekin Pilar egunean. Baserrian erditik (ontzi batetik) jatea ezagutu dute.

10. Baserrian egunero babak bazkaltzeko

- **Erref:** ARR-015/017
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:26:20. **Bukatu:** 00:27:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Jatekoa baserrian. Baba gorriak aste guztian. Igandetan, garbantzuak.

11. Sarri baserriko lanengatik eskolara joan ezin

- **Erref:** ARR-015/018
- **Iraupena:** 0:03:25. **Hasi:** 00:27:40. **Bukatu:** 00:31:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Encarna Orobengoa Orue. Eskola kontuak. Irakasleak: Urbana eta Isabel. Maistra nolakoa zen; zigorrak. Neska asko gela bakoitzean. Sarritan baserriko lanak egiten behar izaten zituzten eta eskolara joan ezin. Garotara edo egurretara nora joaten zen. Aita lantegian hasi zen lanean. Anai-arreba gazteagoek eskola gehiago izan zuten.

12. Baserriko lanak egin bitartean abestu egiten zuten

- **Erref:** ARR-015/019
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:31:05. **Bukatu:** 00:32:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Kantei buruzko azalpenak

Laburpena:

<p>Baserriko lanak egiten zituzten bitartean, askotan elizako kantak abesten zituzten. "Magnifica"; "Atoz pekataria".</p>

13. Basora lanera joaten zireneko menua

- **Erref:** ARR-015/020
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:32:50. **Bukatu:** 00:34:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

Basora lanera joaten zirenean, porru-patatak eraman eta ondoren perretxikoak batu eta erreta jaten zituzten. Pago-sail handiak.

14. Aitajaunarekin harremana

- **Erref:** ARR-015/021
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:34:00. **Bukatu:** 00:35:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Umetan amandrearekin egoten ziren. Aitajaunarekin harremana oso ona zen. Ogia tostatu eta gainetik azukrea botatzen zion.

15. Aitajaunaren aita Santa Kurutz apaizarekin harremana

- **Erref:** ARR-015/022
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:35:35. **Bukatu:** 00:38:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Aitajaunaren aita Santa Kurutz apaizarekin harreman estua izan zuen. Orduko kontuak aipatzen ditu. Gaitzizena "Karraskaintxo" zuen.

16. Aitajaunak kontatzen zituen ipuinak; lamiak

- **Erref:** ARR-015/024
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:40:35. **Bukatu:** 00:43:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:

Aitajaunak kontatzen zituen ipuinak. Lamiak.

Transkripzioa

- Bueno, ba, esaten zauen, ba, zerien, han bizi ziela lamiñak, han koba haundixe dauen lekuen. Ta han urteten zauela, ba, illetargixe garbixe zauenien hara. Ta orrazketan, baiñe urrezko orrazixekin urteten zauela. Bai. Eta ziela oso guapak, emakuma guapak. Eta egun baten, hemen esaten da Korrioneko kriaue. Korrionen zan kriaue bat pastore...

- Bai, pastore...

- Orduen, ba, han fan zan ta urten otsen ilunkeran emakumiorrek bera etxera datorrela, ba, ardixek batu ta, enfin, lanak eindda. Ta berbetan ta jo! Mutilloi zoratuta, holako emakumeik! Izen biher zan oso ederra, dana ondo einddakue ta hori. Eta jo! Handik egun gutxira ostera ta mutilloi guztiz enamorauta. Kauen la puñeta! Ta joe, ba, "nik etxien edo..."

- ..."esan biherko juat".

- Bai. Ta, ba, etxera fan zanien, "Zu, beitu...", ba, bere uezabai-edo "Zu, beitu: hortxe juntetan naz etxera natorrenien emakuma bateaz. Da ederraue! Baiña, baiña zoragarrixe, e!" Ta [...] esan otsen: "Hi, baiña...", ta "Bai, bai, ba, hantxe". Ta "Nun urteten dutsu, ba?", "Han, ba, kantera koba haundiko han zerien. Haintxe erreka onduen egoten da". Ta bestiek: "Hi, beitutsek hankak zelakuak dauken?", ta "Ba, ez", "Ba, beitiok aber zelako

hankak dauken". Eta zerien, ba, fan ta konturetu zan, ba, zerokin, hankokin, eta zerenak, arraiñanak, paitten hankak. [...] eta etorri zaienen, enee! haren disgustue! Esan eutsen, ba, zerorri. "Beitu, ba, esaten nustan nik, horrek lamiñak dittuk! Gehixao ez hari arrimau! Ta pasetan hazenien aittieren ein, e! Pasetan hazenien ezkutaiko dittuk eta". Ta hola. Baiña mutilloi kriston disgustuaz eta hil ein zan disgustuakin. Eta entierrez lamiñie be fan ei zan atzeratxueutik. Bai, Korrióna dao hor zerien.

- Bai, bai, badakit, badakit.

- ... Handik elixa ondoraiñok, baiña kanposanto aurrien geratu ei zan, elixara ez ei zan sartu. Hara lagundu ei otsan, haraiñotxe, lamiñiorrek.

17. Ahuntzen inguruko ipuina

- **Erref:** ARR-015/025
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:43:40. **Bukatu:** 00:45:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:

Aitajaunak kontatzen zituen ipuinak. Ahuntzen ipuina.

Transkripzioa

- Nik ez dakit oin, apur bat freskatu ezker, besten batekin be... Hor badie beste batzuk be, baiña ez dakit.

- Klaro, hau zela dan zahartxuaue...

- Hor badao beste bat ahuntzena-edo, ezta?

- Ahuntzek-edo ez zauen, ba, urteten hor nunbaiten?

- Bai. Bai, ba! Pastore bateri, ba, gabian, gaba allegau jako ta hor... Orduen, ba, itxuria, hori zan pastore lekuoi, ta, ba, zera: akerra falta. Akerra ez, adarixe falta. Adarixe falta. Ta "Kauen la puñeta!", halakon baten entzun dau zerian... Artazu esaten jakon kanterie dauen aldeko mendixe, e! Ta bestie Atxabal, ezkerrekue goiezela hara. Eta han "tolon-tolon, tolon-toloton" zeroi, ta "joño! Hemen jak!". Hara fan ta ezebez, bestekaldeko hatxien. "Kauen la puñeta!". Pasau, fan hara, ta berdin. Ta halakon baten aker haundi bat bal-baltzak [esan]: "Ze [dabik] hemen? Ze pasetan jak?". Eta, jo, sustaute: "Ba, akerra, akerra...", "Eskerrak emon heike, hor kolkuen daroien kurutziei, bestela hemen geratuko hintzen". Ta akabo mutilloi! Haren... Sustauta! Bueno...! Bai.

18. 'Atxia motxia' kanta

- **Erref:** ARR-015/027
- **Iraupena:** 0:00:30. **Hasi:** 00:47:10. **Bukatu:** 00:47:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak

Laburpena:

<p>'Atxia motxia' kanta.</p>

Transkripzioa

- "Atxie-mutxie" hori be bai...
- Horrek bai, e! horrek gauza danok bai!
- Horrek, horrek...
- Ba hoixe:

Atxie-mutxie, pirulin pan,
nere semie errotan,
erota txikiñek klin-klan
botikario,
kalendario,
hamen etxien zenbat hatz?
Bost hatz.

Bai, ta gero "bost hatz" edo "bat", gure dana. Horreik kontuok bai.

- Horrek zauken, zan joku bat hori.
- A! Jokue zan?
- Bai, hola, atzamarrak...
- ... hartzen zien...
- A! Bai, bai, bai...
- Hori "dekolin-dekolan" zan.

19. "Dekolin, dekolan..." jolasa eta kanta

- **Erref:** ARR-015/028
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:47:40. **Bukatu:** 00:48:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

<p>"Dekolin, dekolan..." jolasa eta kanta.</p>

Transkripzioa

- Hori "dekolin-dekolan" zan. Hola jarritte.
- Hori kantetan zan.
- "Atxie-mutxie" hola zan, hola atzamarrak ipinitte, ta "Dekolin-dekolan" zan holan bizkarrien jota. Hi be akordauko haz horregaz, "Dekolin-dekolan".
- Bai, bai, bai...
- Ni ez!
- Guk hori eitten gaixonan holan, baiña "Bekolin-Bekolan"...
- "Dekolin-dekolan", bizkarra ipinitte, bai...
- Zelan da "Bekolin-bekolan" hori?
- Ba: "Bekolin-bekolan, de la..." Zela don? Hola da?
- "... del palacio a la cocina. ¿Cuántos dedos hay en...?"
- Bai, hori da.
- Bai, eta hik esan biher otsanan "lau" edo "bost" edo...
- [...] zenbat hatz?
- Hori da.
- Zenbat hatz...
- Hori neuk [...]...
- Eta bat egoten zan... Igual lau, ezta? Ba, batek jartzen eutsen zerai, ba,

zenbat hatz? Ba, bi, hiru, lau edo bost edo hamar, edo bat.
- Ta gero asmau ein biher?
- Asmau ein biher.

20. "Andra Joxepa tronpetan..." kanta

- **Erref:** ARR-015/034
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:53:10. **Bukatu:** 00:54:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak

Laburpena:

<p>"Andra Joxepa tronpetan..." kanta.</p>

Transkripzioa

- "Andra Joxepa tronpetan..."... Zela don?
- "...erregiñia lantzetan. Jarri belauniko, adora jesukristo. Aitatxo, amatxo, urra-urra pispitxo..."
- Ta, ba, danok jarri lurrien...
- "Joxepa Etxebarriko jira beste aldera!", ta buelta ein ta...
- ... ta gero bueltau.
- Hori berrero ingo dou? Hori ipiniko dou ondo.
- [...]
- Aber:

Andra Joxepa tronpetan
erregiñia lantzetan
jarri belauniko,
adora Jesukristo
aitatxo, amatxo
urra-urra pispitxo
Joxepa Etxebarriko
jira beste aldera!

Hor gehixao be baazen, baiña...

21. Eskolako kontuak; zigorrak

- **Erref:** ARR-015/036
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:54:45. **Bukatu:** 00:56:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak

Laburpena:

<p>Eskola kontuak; maisua oso gogorra zen. Zigorrak.</p>

22. Kartetan, tortoloska; mezak eta bezperak

- **Erref:** ARR-015/037

- **Iraupena:** 0:05:40. **Hasi:** 00:56:50. **Bukatu:** 01:02:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

<p>Kartetan jende nagusiak egiten zuen gehiago. Tortoloska. Igandetan 7:00etarako mezara joan behar izaten ziren. Bezperak. Etxe-garbitzea. Lan-baldintzak.</p>

23. Emakumeen lana baserrian

- **Erref:** ARR-016/005
- **Iraupena:** 0:04:25. **Hasi:** 00:07:00. **Bukatu:** 00:11:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Antzinako bizimodua. Auzoko emakumeak errekan garbitzen zuten arropa. "Pujetie". Ehunezko izarak. Baserriko lanen banaketa emakumearen eta gizonaren artean.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-12-16

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com